

**NAFARROA TOKI-IZENAZ AZALPENA**



## NAFARROA / NAVARRA IZENAK

Iruñean, 1992ko abuztuaren 2an

JOSE MARIA RODRIGUEZ OCHOA jauna  
Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia  
Iruñea

Jaun agurgarria:

NAVARRA toki-izenari buruz azken ekainaren 24an zuk egindako galderari erantzunez, Euskaltzaindiak, Onomastika batzordeak gaia aztertu ondoren, azalpen hau egiten du:

1. Lekukotasun idatzien arabera *Nafarroa* da gure herrialdearen euskarazko izen jatorria, bukaeran *-a* itsatsia duelarik. Hortaz *Nafarroa*, *Nafarroatik*, *Nafarroara*, *Nafarroakoa*... eta abar deklinatu behar da, *Aezkoa*, *Gipuzkoa*... eta antzeko beste izen batzu bezalaxe. *Nafarroa* da, gainera, egungo euskara batuaz (telebistan, irratian, egunkarietan, liburuetan...) erabiltzen den forma.

2. Toki askotan erabiltzen den *Naparroa* aldakia *Nafarroa* baino berriagoa da, eta honetatik atera da,  $f > p$  aldaketa ezagunaren bidez.

3. Gentilizioaren lehen lekukotasuna eta egun zabalduen dagoena *nafarra* da (*naparra*, honen aldaera besterik ez baita), eta gure ustez forma hauxe da hobetsi beharrekoa, beranduago azaltzeaz gainera askoz toki gutxiagotan erabiltzen den *nafartarra* gaitzetsi gabe, ordea.

4. Bi Nafarroak bereizteko autore klasikoek *Nafarroa garaia* eta *Nafarroa beheara* ibili izan dute. Garbi dago bigarren hau erdaratikako *Baxenabarre* eta berriak bide diren *Benabarra* edo *Be(he)nafarroa* baino jatorragoa dela, eta beraz lehentasuna hari eman behar zaiola.

Eranskinean doakizu esandakoaren oinarritzko zehaztapena.

Izan ongi.

Jose M. Satrustegi  
idazkari orokorra



## **NAFARROA / NAVARRA IZENAK**

*José María Rodríguez Ochoa*

*Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia*

Iragan Ekaineko 24ean Euskaltzaindiari *Navarra / Nafarroa* toponimoaren inguruko txostena osatzeko egindako eskaerari erantzunez, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak ondoan datorren lana aurkezteko ohorea dauka. Hona hemen bertan biltzen diren gaien laburpentxoak:

### **1. NAVARRA:**

- 1.1. *Nabar* patronimikoa.
- 1.2. *Nabar* toponimoa.
- 1.3. *Nabar* antroponimoa.
- 1.4. *Navarra* izena.

### **2. NAFARROA:**

- 2.1. *Nafar, Nafarra, Nafarroa* antroponimoak.
- 2.2. *Nafar, nafartar...* eta beste gentilizioak.
- 2.3. Gure Herrialdearen izena euskal testuetan eta ahozko erabileran.
- 2.4. Bi Nafarroak bereizteko testuetan ibilitako izenak.
- 2.5. Ondorioak (irizpena).

### **1. NAVARRA**

#### **1.1. *Nabar* patronimikoa:**

1.1.1 *Nauarri* patronimikoa analista karolingiarrek erabili zuten VIII. mendearen bukaera aldetik aitzina, Karlomagno Pirinioetatik igaro zenekoa (778. urtea) kontatzerakoan, mendiez honaindiko biztanleak izendatzeko.

1.1.2. Eginhardo: “Hiberum amnem apud *Navarros* ortus”.

“Anales regios” direlakoak: “pampilona destructa, Hispanos et Wascones subiugatos etiam eta *Nabarros*, reversus est in partibus Franciae”.

“Anales nuevos” direlakoak: “Pampelonem, *Navarrorum* oppidum adgressus, in deditionem accepit”.

1.1.3. Iruñeko Jaun Done Satordiko forua (1129): “Nullus homo non populet inter vos, nec *nauarro*, neque clericus, neque milite, neque nullo infanzone”.

1.1.4. Lizarrako foruaren baiestea (1164): frankoen eta nafarren arteko leku-koen jatorria mugatzen du: “*Navarrus* debet esse citra Liçagorriam uel citra pontem Arqueta” (FESS, I, 88. or.); “Lo *Nauarr* deu esser de Liçaguerria en ça” (FESS, II, 233. or.).

## 1.2. *Nabar* toponimoa<sup>1</sup>

### 1.2.1. Erdi Aroan:

- *Nabardunum*, *Nabardun* (880, Doc. Med. Leire, 3; 1055, Doc. Med. Leire, 49).
- *Nabarrete* (Logroño, Teruel, Toledo); *Navari* (Huesca).
- *Navaridas*, *Zuaznabar* (Gipuzkoa, 1025); *Nabarniz* (Bizkaia).
- *Nabarino* (Mesania, Grezia), baina Oltzan, 1078, CDI, 80), *Navarin* (Ameskoa, PV).
- *Navarzato* (Erronkari, 1085, DML, 114); *Nabarci* (Urraulgoiti, 1268).
- Legarreta *Nauarr* (Ibañeta, 1071, Doc. Med. Leire, 91); *Nauarr* olatze (Orreaga, 1284) = *Nabarolaz* (Luzaideko etxea, 1342, Col. Dip. Roncesv., 200. zkia.).

### 1.2.2 Azken mendeotan:

– Zangozako merinaldea: *Nabartenberrokoa*, *Nabarenzokoa* (Abaurrepea, 1916); *Nabaro*, *Nabaro* (Burgi, 1892); *Bidenabarre* (Esnatz, Erro, 1892); *Echanabari* (Aintzioa, Erro, 1892); *Artanabarra* (Itzalle); *Artanabarreta* (Garaioa, Aezkoa); *Nabarzato* (Garde, Erronkari, Urzainki, 1991); *Nabarroa* (Izaba, 1910); *Ernabarrea* (Sartze, 1916), *Nabarlaz* (Luzaide, 1709).

– Iruñeko merinaldea: Orobeoaz *nabarra* (Altsasu, 1767); *Ipenabarra* (Uztegi, 1711); *Ipinabar* (Arano, 1894; Areso, 1764); *Arnabarreta* (Areso, 1702; Arruazu, 1893); *Ziordia*, 1858; *Olatzagutia*, 1981; *Lakuntza*, 1892); *Arnabarretako bidea* (Arruazu, 1991); *Iruranabarra* (Etxarri-Aranatz, 1715); *Arrinabarra* (Urdiain, 1991); *Arrinabarreta* (Goizueta, 1991); *Ariznabarretako iturria* (Leitza, 1990); *Aizenabarreta* (Aezkoa-Hiriberri, 1785); *Harnabarra* (Aralar, 1991); *Arnabarreko atea* (Aralar, 1790); *Ardanabarreta* (Ultzurrun, Ollo, 1797); *Lizarnabarra* (Bera, 1991); *Garinabar* (Gartzarun, 1758); *Urdinabar* (Muskitz, Imotz, 1981), *Nabarzabal* (Bakai-ku, 1991); *Nabardi* (Betelu, 1709); *Nabarlatz*, *Nabarlatza* (Etxalar, 1738); *Nabarlako hegia* (Etxalar, 1991); *Nabarrola* (Etxalar, 1991); *Nabarenea* (Leitza, 1810); *Nabargaña* (Lesaka, 1894).

– Lizarrako merinaldea: *Nabarete* (Iguzkitza-Muniain, 1896), *Salanabarra* (Bakedano, 1895).

<sup>1</sup> Maiz ‘pardo, abigarrado’ adiera du, Mitxelena, AV, 464. sarrera.

1.3. *Nabar* antroponimoa:

1.3.1. Pertsona izena: *Nauar* (“testigo en Stella, 1192), Lacarra: Col. Dip. Irache, 215); *Nauar* de Arinzano (Arintzanon, 1143, CDI, 144); Don *Nauar* (“cabezalero”-a Lizarran, 1218, DCI, 298); *Domna Nauarra* (“en Urbe Cirauqui”, 1198, id, 223; Lizarran, 1232, id, 349); Doña *Nauarra* Crozat (Iruñea, 1348, García Larragueta: APSCP, 23); *Nauarret Nauarr* (Iruñea, 1310, García Larragueta: o. c., 6. zkia.).

## 1.3.2. Famili-izena (deitura):

Lizarran eta Lizarrerrian:

Sancio (Sanz) *Nauar* de Stella (prop., 1120, CDI, 104, 122); García *Nauarra* de Stella (1122-1131, 122. zkia.); García *Nauarr* (“testis Stella”, 1144, 145); Calvetus, filius San *Nauarr* (“testis Stella”, 164. zkia.); Caluetus *Nauar*, Johannes *Nauar* (1170, CDI, 178); Orti *Nauarra* (Prop. Estella, 1236, 357); D. Pero *Nauarr*, abad de Mendavia (1321, 482); Pero *Nauarr*, prop. Mendavia, 1383, 531).

Beste toki batzutan:

Fortunius *Nauarro* (Turrillas, 1209, CDI, 246).

Pere, Johan, *Navarret Nauarr* (Iruñea, 1310, APSCP, 6. zkia.).

Miguel de hermiaga alias *navarro* de santesteban (1577)<sup>2</sup>.

1.4. *Navarra*:

Toponimo honen jatorri, etimologia eta adieraren inguruan ikuspuntu eta planteamendu diferentetatik egindako makina bat ikerketa eta lan daude bazterretan. Emaitzak ezberdinak eta are kontraesaleak dira. Puntu honetan toki-izenaren eta aldaeren lehen lekukotasunetako batzu bildu nahi izan ditugu:

1.4.1. Comes Sancius in *Nauarra*:

1087-1115 urteetan azaltzen da nafar dokumentazioan “comes in *Nauarra*” titulupean, eta zenbait jabego dituela (Erro, Pampilona, Aibar, Falces, Liguin, Exeia). “Konderria”-ren hedaduraz Urbieta Arteta arduratu da “Homenaje de Aragón a Castilla por el Condado de Navarra” lanean, *Estudios Edad Media de la Corona de Aragón*, III, 1947-1948-n.

1.4.2. “Regnante in *Nauarra*”

Tartekatutako agirietan azaltzeaz gainera (1047), aldika Antso Ramirezen (“regnante in Aragone et *Nauarra*”, 1086, Martín Duque; Doc. Med. Leire, 121), eta Antso Ramirez Errestauratzailearen (1034-1150) agirietan azaltzen da, eta batez ere Antso VI Jakitunarenetan (1150-1194).

<sup>2</sup> PRA-Donestebe, 33. k.

Dugun xederako toponimoak adierazten zuen eskualdearen hedadura bigarren mailako kontua da. Vianako Printzeak ez du argitzen; Yanguas y Mirandaren ustez (*Diccionario de Antigüedades*, II, 464-465) XII. eta XIII. mendeetan *Navarra*-k erresumaz bestelako lurraldea ematen zuen aditzera, “Tutera eta Azkoiengoek berdin hitz egiten baitute ‘Navarra’-z, *Nafarra* edo *Nafarroa* (hots, ‘Navarra’) Iruñerriari esan ohi diotelarik”.

## 2. NAFARROA:

### 2.1. *Nafar*, *Nafarra*, *Nafarroa* antroponimoak:

“Molino de Ama *Nafarra*” (Grañon, Errioxa)<sup>3</sup>.

“*Nafarra* de Berriz” (Berriz)<sup>4</sup>.

“... hasta el siglo XVI, en que D.<sup>a</sup> *Nafarra* de Bériz...”.

San Esteban de Lerín bailarako datuak:

“Joanes de Çubiburu alias *naffar* de san joan de luz” (1535)<sup>5</sup>.

“*Nafarra* Ychecorena de beynça” (1568)<sup>6</sup>.

“*Nafarra* de Galbarrarena de labayen” (1568)<sup>7</sup>.

“*Nafarra* la mujer de Miguel de aurtiz alias larrayn de çubieta de la casa larrayn” (1561)<sup>8</sup>.

“Maria alias *nafarra* de çubieta”.

“Cathalina *nafarroa* vezina del pasaje de la parte de San Sebastián” (1568)<sup>9</sup>.

### 2.2. *Nafar*, *Nafartar* ... eta beste gentilizioak:

#### 2.2.1. Beotibarko gudua (XIV. mendea. TAV)<sup>10</sup>:

“Mila urte ygarota / Vra vere videan, / Guipuzcoarrocc sartu dira / Gazteluco echean, / *Nafarroquin* batu dira / Beotibarren pelean” (66. or.).

2.2.2. Joannes Etxeberri Sarakoaren *Lau-urdir* gomendiozko karta edo *guthuna* (1718)<sup>11</sup>:

<sup>3</sup> AV, 464. sarrera.

<sup>4</sup> *Anteiglesia de Berriz. Datos para una historia*, Vicente Urquiza, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo, 1983, 12. orr.

<sup>5</sup> PRA-Donoztebe, 19. k.

<sup>6</sup> Id., 19. k.

<sup>7</sup> Id., 20. k.

<sup>8</sup> Id., 19. k.

<sup>9</sup> Id., 19. k.

<sup>10</sup> Minotauro, Madril, 1984.

<sup>11</sup> *Joannes Etxeberri Sarakoaren lan hautatuak*, Lur, Donostia, 1972.



“...zeren geure hitzkuntza propiala baitarabilagu hain nahasia, eta trukhatua, non eskualdunok gerok pena eta neke baitugu elkharren aditzeko.

Ezperen bat bedi *Nafarroa-Beherearra*, edo Zuberoarra Bizkaitarrekin, edo Alabesarekin, eta Otxagabiarra, edo Erronkalesa Baztandarrarekin eta Lau-urtarrarekin, ...” (287. or.).

2.2.3. Sebastian Mendibururen *Idazlan argitaragabeak-I* (1740-1767)<sup>12</sup>:

“... eta guertatuko dà hitzquetan ere hitzetan gueniona ta urte gutiren buruan len baño errazquiago elcar adituko dute euscal errico *Nafartarra* eta beste euscal-dun guciac...” (55. or.).

2.2.4. Aralar mendiko Santutegiko testua (1833)<sup>13</sup>

“...eta Justisimamente merecidu estimaciya, honrra, ta devociya *Nafar-tarrendi*, ...” (201. or.).

2.2.5. Jean Baptiste Archuren *La Fontainen alegia berheziak* (1848)<sup>14</sup>:

“Haxeri bat *naphartarra*, bestek diote laphurtarra...” (87. or.).

2.2.6. Agosti Chaoren *Ariel aldizkaria* (1848-1852)<sup>15</sup>:

“Ziberutar maitiak, laphurtarra nik bezain untsa konprenitzen duzie. Fida niz *Baxenabartarrek* ere gure Basaburuko uskara-hau perfetzionian kunprenituko die-la” (63. or.).

“...zer arrazuz edo motiboz Chaho Basaburutarrak eta Dindaburu *Baxenabartarrek* Errepublikano legez eman dugun gure demisionia...” (64. or.).

“Ez othoi ahatz xifre hau, ta nuren izenian zier mintzo nizan, Basaburutar eta *Bexanabartar* maitiak!” (65. or.).

2.2.7. J. M. Hiribarrenen *Eskaldunac* (1853)<sup>16</sup>.

“Eguiten edaria sagarrez urean; / Etzuten *nafar* biltzen aldeco lurrean; ...” (14. or.) (gentilizioa?).

“mende bat eta erdi, bi bortz urtherekin / Egon cen Aragona berech *Nafarrekin*” (65. or.).

“Kausa dire mendia, Frantses eskalduna / Ezbacen *Nafarrekin* Español eguina; ...” (72. or.).

<sup>12</sup> Mensajero, Bilbo, 1982.

<sup>13</sup> J. M.ª Satrustegi, *Euskal Testu Zaharrak*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.

<sup>14</sup> Euskal editoreen elkarte, Oiartzun, 1990.

<sup>15</sup> *Azi-begia eta beste izkribu zenbait*, Euskal editoreen elkarte, Donostia, 1992.

<sup>16</sup> Lur, Donostia, 1979.

“Hola ditu Laphurdic hegalac hedatzen, / Cascoïn, *Nafar*, Español dituela jotzen” (86. or.).

“Aldean Laphurtarra ezda Chuberoco, / Ez eta *Nafartarra* nahi Alabaco; ...” (74. or.).

“Lardapide, Curuchet, *Nafartar* semeac, ...” (156. or.).

“Zure achkidea cen, Darotchetche yauna, / *Frantses Nafartar* ume ohorez-coena: ...” (157. or.).

2.2.8. Piarres d'Ibarrart jatsuarren *Eliza besta* (1858an kantatua)<sup>17</sup>:

“Hau da arno gozoa, ezti ta azkarra, / Espainiatik jina, berenaz *nafarra* / ...” (32. or.).

2.2.9. Jean Pierre Duvoisinen *Laborantzako liburua* (1858)<sup>18</sup>:

“*Burzuntzari* ematen diote asko izen: *zur-xuria* deitzen dute hainitzek, Pro-bentziarrek *makala*, *Nafartarrek txipoa*. Zolaguneak ditu lakhet.” (168. or.).

2.2.10. Charles Bécas ainhoarraren olerkiak (XIX. mendearen bigarren erdikoak)<sup>19</sup>.

“*Nafartarra* naiz eta deitzen Martin Coche; / Arno gozoa maite omen dut... soberaxe!” (155. or.).

2.2.11. Frantzizko Laphitz arizkundar-irisarritarraren *Bi saindi heskualdunen bizia* (1867)<sup>20</sup>.

“Bazakien Iñaziok *Nafartarren* berri. Bazakien anaia batzu bezala igurikatzen zituztela Frantsesak eta beldur zen haren soldadoak, gehienak *Nafartarrak*, Frantsesen alde itzul ziten” (42. or.).

“Iñaziok beldurra zuen bezala Frantses armada bozkariorekin hartu zuten *Nafartarrek*” (43. or.).

“Biba Henri Albretekoa!” diote *Nafartar* soldadoek. ‘Biba *Nafarroko* erregea! Biba Frantses armada!’ (43. or.).

“Parisen, eskoletako nausi guzien artean ethorkizunik ederrenekoa, *Nafartar* bat zen, filosofiaren erakusle Bobeseko eskoletxean” (116. or.).

“Handik harat, oren on baten beha zagon *Nafartarrekin* solhasean sartzeko” (117. or.).

<sup>17</sup> *Fantasia y realidad. Selección literaria vasca*. Auñamendi, Donostia, 1967.

<sup>18</sup> Euskal editoreen elkarte, Zarautz, 1986.

<sup>19</sup> *Fantasia y realidad...*

<sup>20</sup> Euskal editoreen elkarte, Donostia, 1986.

2.2.12. J. B. Alissambururen *Piarres Adame*<sup>21</sup>.

“... hiru gizonek erran zutela goraki eta paperean ezarri: *Nafartarrak* franko luxea zuela sudurra, baina mehea; ...” (9. or.).

2.2.13. *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak* (1900-1930)<sup>22</sup>.

“...makila zilarreztatua erori da *Baxenabartar* baten eskurat”.

“...airatzen gaitu Euskalduntasunaren urguluak, eta Lapurtar, Xuberotar, *Baxenabartar*, ...” (18. or.).

“Gora gure bihotzetan, mendez mende, *Nabartar* Semearen oroitzapena!” (122. or.).

“Haurride baitzinituzten, *Nabartar*ekin bat jarri nahi izan zintuen hamahirugarren mendean, Aragon eta *Nabarreko* erregearen meneko, ...” (145. or.).

“Zernahi izanik, lurpez lurpe erroak sartu zituen herrialderik hurbilenean: *Nabarren*. Lapurtar, Ziberotar, *Be* eta *Goi-nabartar* apez, eskolemaile, neurtizle, idazle, oro elgarrekin eskuz esku. Lapurdi eta *Benabarre* hargatik buru” (294. or.).

“...euskara kutsua baizik etzakiten erdaldunak, bizkaitar, *nafarro*, lapurtar, gipuzkoano, *baxenabartar*, ...” (306. or.).

2.2.14. Enrike Zubiri “Manezaundi”-ren *artikulu bilduma* (1930-36)<sup>23</sup>.

“Ohore *Napartarren* argitzaile eta iratzartzaileari!” (97. or.).

“*Boryel*, *Baxenabartarra* (Luzaidekoa); Otxalde Laphurtarra, eta Etxahun, Xuberotarra, ...” (100. or.).

“...bere yahkin nahiaren gosea asetzeko, eta *Nafartar*eri yakinarazteko...” (120. or.).

“Adi zazue, *Nafar* egiazko itsutuak, ala, alegiazko itsutuak, (denetarik baitira, gero)” (131. or.).

2.2.15. R. M.<sup>a</sup> de Azkue:

“Izan diteke ene lan gau *napar* eztiren eta goko berri eztakiten batzuen eskuetara eltzea” (182. or.)<sup>24</sup>.

2.2.16. *Erizkizundi Irukoitza* (1924-1936)<sup>25</sup>:

Lan honeta ‘navarro’ esateko Euskal Herrian zehar alde handiz gehien erabiltzen den aldaera *napar* dela ikusten da, bigarren tokian honen sorburutzat

<sup>21</sup> Elkar, Lizarra, 1982.

<sup>22</sup> Elkar, Donostia, 1984.

<sup>23</sup> Euskal editoreen elkarte, Erandio, 1990.

<sup>24</sup> “Aezkera edo Petiriberro-inguruetak mintzaera”, *Eusker*a, 1927 Bagilla-Lotazilla, 179-300. orr.

<sup>25</sup> Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

jo daitekeen *nafar* dagoelarik. Gero, baina aurreko horietatik oso urruti, *nafartar* dator, eta honen ondotik *napartar*.

2.2.17. Orixeren *Euskaldunak*<sup>26</sup>.

“Euskalerrri guzian / balankan nagusi, / *Napar* bat joan zaio / bear dula ikusi” (38. or.).

2.2.18. Toribio Etxebarriaren Eibarko hiztegia<sup>27</sup>:

“*Nafarra*. adj. Navarro. *Nafarruan* jaixotako *nafarra*. *Nafar* aura, motza *baña* *zailla* ta *indartsua*.

*Nafarrua*. *Nafarrua*’tik agertu ziran gure apurtzalliak” (562. orr.).

2.2.19. Damaso Intza (*Naparroa-ko euskal esaera zarrak*)<sup>28</sup>.

”bein batez, pillota-partidu gaitza jokatu zuten bi pillotari famatuk; bata, Azantza, Laphurtarra zen; bestea, Perkain, *Nafartarra*.” (18. or.).

Uitzin bildutako esaera zaharra:

“*Napar* apaizak, iputz iztupeuz atorra. Iputz apaizak, *napar* iztupeuz atorra” (43. or.).

2.2.20. Pierre Lafitteren *Murtuts eta bertze*<sup>29</sup>.

“...dena den kaputxin *Nafartar* maingu bat ororen salatzerat ausartatu zen, ...” (59. or.).

2.2.21. *El Euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas* (1965-1967)<sup>30</sup>.

Lan honetan ‘navarro’ euskaraz Nafarroan nola esaten den galdegiten da, eta ikusten denez aldaerarik zabalduena, alde handiz oraingoan ere, *naparra* da (17 herritan, 60tik), *nafarra* herri bakar batean erabiltzen delarik. *Napartarra* hiru tokitan ematen dute, eta *nafartarra* bakar batean.

2.2.22. *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*<sup>31</sup>:

“*Naparra*: navarro; pardo. Begi *naparra*, bei *naparra*”. (196. or.).

<sup>26</sup> Auñamendi, Donostia, 1976.

<sup>27</sup> *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

<sup>28</sup> PV, Iruñea, 1974.

<sup>29</sup> Elkar, Lizarra, 1982.

<sup>30</sup> Ana María Echaide, Eusko Ikaskuntza, Zarautz, 1989.

<sup>31</sup> Altafaylla Kultur Taldea, Tafalla, 1991.

## 2.3. Gure herrialdearen izena euskal testuetan eta ahozko erabileran

2.3.1. Joannes Leizarragaren *Testamentu Berria* (1571)<sup>32</sup>:

“Ioanna Albrete *Naffarroaco* Reguina Bearnoco Andre guehién denari...” (249. or.).

“...eta hunetacotzat çu Andréa, hunez cerbitzaturen cinadela trompettabaten ançora, ceinez Iaincoac deitzen baitzaitu hala çure *Naffarroaco* resuman-ere Sata-ni guerla eguitera...” (253. or.).

2.3.2. Axularren *Gero* (1643)<sup>33</sup>:

“..eta biciaz ere contu guti eguinic, Ioancen donapalaiaora, non baitcen orduan *Naffarroaco* Parlamenta” (6. or.).

“Ceure visita hautsiric, *Naffarroaco* hirur estatuac Vilduric, Ioan cinen Gorthera...” (8. or.).

2.3.3. Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* (1666)<sup>34</sup>:

“*Nafarroako* historian Franziaiko abokat batez eskribatüan edireten da, ñola...” (21. or.).

2.3.4. *Gure erregue Philipe Andiaren heriotzean euscarazco coplac* (1666. TAV):

“O *Nafarroa* leala! / Orai bear du acabatu...” (137. or.).

“Dolore andi eta damù / Daucana viotzean, / *Nafarroac* ezarri dù / Erreguearen obian” (137. or.).

## 2.3.5. Mandazainaren eta Carlos V enperadorearen arteko solasa (TAV):

“– Mandazaya, nondic zatoz?

– *Nafarroatic*.

– *Nafarroan* gari asco?

– Bai, jauna, asco.

– *Nafarroan* gari asco; batere, batere ez neretaco” (154. or.).

2.3.6. Joannes Etxeberrri Sarakoaren *Eskuararen ethorkia* (1715 ingurukoa):

“Vaskueña bertze izenez Gaskueña, eta bertzela Iphuzkoa eta Kantabria hedatzen da Bizkaiako, eta *Nafarroako* zenbait populuetaara herri hetako hitzkuntza deitzen da eskuara” (65. or.).

<sup>32</sup> Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

<sup>33</sup> Bordele, 1643.

<sup>34</sup> *Jakin*, Arantzazu-Oñati, 1975.

“Kantabria, Iphuzkoa, Alaba, Bizkaia, eta *Nafarroako* parterik gehiena, hitz-kuntza hau dadukatenak, dira Espainiako jenderik zaharrenetik noblenetik, eta garbienetik” (65. or.).

“Lehen aiphaturikako gerla hetaz, bere menera, eta azpira zituen lehenik Guiena eta Eskual Herria, bai halaber mendi Pirineoaren gaindegi guztia Hebro-rainokoan, zeina *Nafarroan* sortzen baita, ...” (67. or.).

“...ordean hemendik erran nahi dena da, errege hek eskualdunak zirela, ezen istorioen eredura Eneko, eta Semeno *Nafarroako* errege izan ziren, ...” (74. or.).

“Sarthu zen *Nafarroako* eremuetan, eta setiatu zuen Iruñea eskualdunen hiri buruzagia” (75. or.).

“Bertze alde Doña Katalina Iruñeko alaba, *Nafarroako* erregina zenaz geroztikan, ...” (75. or.).

“Ignazio Loiolakoaren eta Franzisko Xabierko bi saindu haukien presunetan: bata Jesusen Konpainiaren fundatzailea eta bertzea Indietako apostolua, eta *Nafarroako* patroina” (82. or.).

2.3.7. P. Guillaume de Lavieuxvilleren *Bayonaco Diocesaco bi-garren catichima* (1733)<sup>35</sup>:

“Luis Jaincoaren graziaz Franciaco eta *Nafarroaco* Erreguec; Gure Conseiller maite eta lejal, ...” (33. or.).

2.3.8. Agustín Cardaverazen *Eusqueraren Berri Onac* (1761)<sup>36</sup>:

“Ala Provincian, nola *Nafarroan*, ta are gueiago Bizcaian, itz-eguiteco, edo aoz esatean, itz asco laburtcen dira...” (15. or.).

2.3.9. Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* (XVIII. mendearen bukaera aldean idatzia)<sup>37</sup>:

Joanis baigorriarraren “kantikak”:

*Biba Nafarroa / Bolontarioak, / Asanblean dezuiez / kontrarioak...* (117. or.).

2.3.10. Aralar mendiko Santutegiko testua (1833):

“bat, bat bacarra da nic uste duanes España gucian, eta ura arquicen da *Nafarruaco* Erreiñuban, etc. ...” (188. or.).

“Yzandu zen *Nafarruan* Caballero Ylustre edo nobleza aundico bat cedizona Teodosio” (188. or.).

<sup>35</sup> Euskaltzaindia, Bilbo, 1985.

<sup>36</sup> Mixelenak aipatua, FHVko, 1977, 2. argitarapena 264. orrialdean.

<sup>37</sup> La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1978.

“Dn Theodosioc conseguituzuben *Nafarruan* Alargo mendian descansoric aundirena” (192. or.).

“...esan decielá bestela inguruetaco erriyac, vailliac, *nafarrua* guciac bere ingurutako Provinciaquin mendi temple gueiztocontan aparecitu zan esquero...” (200. or.).

### 2.3.11. Agosti Chaoen *Ariel aldizkaria* (1848-52):

“Zenbait jeneral karlista pasatu dira Espainialat Baionatik. Baionatik harma, zapata, bala, kartuxera eta bolbora igortzen ari dira Espainiako Heskual-herri guzietarat. Erraiten dute *Nafarrua*, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia altxatu nahi direla hanbat denbora gabe” (25. or.).

“*Nafarruan* eta probintzian, ez dire urusago izan. Ez dute Montemolinistek nihor atxeman bere piensamendukorik...” (36. or.).

### 2.3.12. Sunbillako testua (XIX mendea)<sup>38</sup>:

“Zu *Nafarruan* Jayua / Parisen Maestru izanziñen; ...” (245. or.).

### 2.3.13. Nicolás Polit auriztarraren testua (XIX. mendea)<sup>39</sup>:

“Erran nezaque (...) garren urtean (sic) *Nafarra* gucia libratu cela parteic gueyena heregeez formatzen cen Franciaco armadaz atacatua izaitetic, ...” (289. or.).

### 2.3.14. Juan Bautista Aguirre Asteasukoaren *Eracusaldiak* (2)<sup>40</sup>:

“Ez da gauza jaquiñagoric au baño: zoaz munduaren edoceñ aldetara, zoaz Franciara, zoaz Italiara, zoaz *Nafarroara*, Gaztelara, eta noranai...” (122. or.).

“Au ederqui adirazten digu Leiren *Nafarroaco* erreñuan, guertatu zan mirari batec” (508. or.).

### 2.3.15. J. M. Hiribarrenen *Eskaldunac* (1853):

“Emeki du herriac yendea ikusi, / Lehenic *Nafarroan* egotua nausi, ...” (43. or.).

“Garcia erreguetzean eskal-herrietan; / Donibane Garacic ala *Nafarroac*, / Biec nahi ohore emana khoroc.” (51. or.).

“Garcia Sanchez zuen semetan lehena, / *Nafarroan* erregue ondotic izana; ...” (66. or.).

“Nahastale puliki carceler eguinic, / Descansu handi zuen eman *Nafarroan*, / Legueri ere indar non nahi ondoan.” (67. or.).

<sup>38</sup> Satrustegi, aipatutako lana.

<sup>39</sup> Id.

<sup>40</sup> Lur argitaletxea, Donostia, 1978.

“Hamabortz garren mende hamabian cela, / *Nafarroa* yarri cen Español bezala, ...” (71. or.).

“Ezcontzaz cion Blancac Thibauti ekharri / *Nafarroa* gucia, pochi prezagari...” (78. or.).

“Lionel *Nafarroan* marescal celaric, / Eta Carlos erregue aita zuelaric,...” (115. or.).

“Izan da Perochegui, capaitain hautua, / *Nafarroan* erreguec berekin lothua,;...” (139. or.).

“Ariac bacituen Grammont handiekin, / Baita *Nafarroaco* erregue biekin...” (148. or.).

“Hargatic *Nafarroa* uzten dut saltoan, ...” (158. or.).

“Aberats da handizki bihotzez *Nabarra*; / Herri bakhotchac badu nihonden izarra...” (158. or.).

“Portugaetic Carlos kasatu ondoan, / Rodil morga handitan sarthu *Nafarroan*; ...” (162. or.).

2.3.16. Frantzizko Laphitz arizkundar-irisarritarraren *Bi saindu heskualdunen bizia* (1867):

“Hitzeman zuen *Nafarroa* sei ilhabeteren buruan itzuliko zuela bere nausi zuzenari Henri Albretekoari” (41. or.).

“Henri Albretekoak jakinik *Nafarroko* tropak oraino Castillan direla, armada bat igortzen du gure kontra bere ondoriotasunean sartzeko” (41).

“‘Biba Henri Albretekoa!’ diote *Nafartar* soldadoek. ‘Biba *Nafarroko* erregea! Biba Frantses armada’” (43. or.).

“*Nafarroko* Gobernadorea ene oseba da. Iruñe bidean da zuen gudukatzerat heldu” (45. or.).

“Noizbait hurbildu zen Portugaleko enbaxadorea, eta, *Nafarroan* sartzean, Franzizcori erran zion: ...” (162. or.).

“Guziek badakaite, *Nafarroan* bereziki, zoin den botheretsua San Franzizko Zabieren arartekotasuna” (183. or.).

2.3.17. J. B. Elissambururen *Piarres Adame*<sup>41</sup>:

“Erraten zuen ere Piarres Adamek, behin, aditurik *Nafarroako* herri batean, ene ustez Alduden...” (9. or.).

“...eta, han, gudua ikusi zutenen arabera, Lapurdi *Nafarroari* nagusitu zela; ...” (9. or.).

<sup>41</sup> Elkar, Lizarra, 1982.



## 2.3.18. Jean Etchepare mirikuaren idazlanak (1900-1930):

“Ohartua niz badirela zuen artean Arabatik Bizkaitik, Gipuzkoatik, *Nabarretik*, Lapurditik, Ziberotik *Benabarretik* hunat etorriak” (122. or.).

“Duela hiru ehun urteren ingurua, *Nabarreko* seme, ...” (122. or.).

“Haurride baitzinituzten, *Nabartarekin* bat jarri nahi izan zinuten hamahirugarren mendean, Aragon eta *Nabarreko* erregearen meneko, ...” (145. or.).

“*Eskualduna* hobeki lehiatzen zen jende xehearen argitzera. *Nafarroako* hegi bat hartuz” (155. or.).

“Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta *Nafarroak* alabainan nolako guduak ez derabiltzate...” (184. or.).

“Zernahi izanik, lurpez lurpe erroak sartu zituen herrialderik hurbilenean: *Nabarten*” (294. or.).

“...bazituela gure Herri maiteak sei eskualde: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, *Nabarra*, Lapurdi eta Zibero” (340. or.).

“*Nabarre* erorkiz jin zen noizbait, Landesetan bizi zen, *Albret* deitu familia aberats baten eskuatarat” (341. or.).

2.3.19. Autore beraren *Beribilez*<sup>42</sup>:

“...adituak garelakotz berdin ez dela gehiago han *Nabarreko* erregeek gainean zin egiten ohi zuten zilar-estalgiareskilako liburu handia” (49. or.).

“...Lehengo errege *Nabarrekoen* hiria huna nun dugun berehala begien aitzinean, ...” (57. or.).

2.3.20. Xabier Lizardiren *Kazetari-lanak* (1927-33)<sup>43</sup>:

“Onuntzakoan baño areago, *Naparroa*’n barrena —Baigorri’tik— itzultzea erabaki baitegu, gerekin” (230. or.).

“Orain *Naparroa*’n gera. Obera esan, aspaldi genbiltzan *Naparroa*’n barrena, mugaz beste alderditik ere *Naparroa* baita. Ikus, bestela, non-nao. etxeaitziñetan naiz pillotatokietan; ikus *Naparroa*’ko kateak, arroki erakutsiak...” (230-231. or.).

“...Eusko-Erti-lanen Argazti-Biltzaz, Apraiz’ek; *Naparroa*’n “romanicoa” edo etxegintzarekiko Erroma-era, Azkona jaunak...”.

2.3.21. Enrike Zubiri “Manezaundi”-ren *Artikulu bilduma* (1930-1936):

“Bainan, nork ihkusi ahal du lanpide hortako gizon bat, eta gehiago dena, biarnesa, *Nafarroako* ardo gorriari itsuki emana ez dena?” (80. or.).

<sup>42</sup> Euskal editoreen elkarte, Zarautz, 1987.

<sup>43</sup> Erein, Donostia, 1987.

“Zuri esker, beraz, dakigu zein haundia eta aipatua zen aitzineko mendetarik geroz gure *Naparroa*” (97. or.).

“Zure bihotz suharra eta zure yakaitate haundia *Naparroaren* eta Eskualherri guziaren amodioz...” (97. or.).

“Hiru idazti eman ditut *Nafarroa* behialako denboretako gora-beheretaz mintzaturik” (101. or.).

“*Nafarroa*-ko etxe berexienetarik zen, aitorensemea, ...” (101. or.).

“Erdaraz eskolatuak zirela eta *Nafarroa*-tik kanpo hilak?” (108. or.).

“1839-garren artio baginituen *Nafarroek* edozein erresumak dituen legeak” (140. or.).

“Ohoitza hori mendiez hunaindiko alderdian egin zuten, baina ez harandiko edo Franzia aldeko *Nafarroan*, *Benabarran*” (144. or.).

2.3.22. Pablo Fermín Irigaray “Larreko”-ren *Artikuluak* (1920-36 inguru-koak)<sup>44</sup>:

“Aspaldidanik, *Nafarroako* Oroituri-aren arabera, munduko lau kantoñetara edatua zen eta dago Orreaga izena” (163. or.).

“*Nafarroako* gizagende mota larriena an dago” (177. or.).

2.3.23. Azkueren *Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera*:

Azkuek bildutako esaera batean azaltzen dena:

“San Juan bezpera-gabean erretzen zituzte San Juan-belar hazkoak, au erranes: *garia Nafarroara, sarna Gipuzkoara*” (222. or.).

2.3.24. Orixeren *Euskaldunak*:

“*Naparroa* zârrean Larraun'en Uitz, / belar goxo tartean eperkabi iduri” (15. or.).

“Oialarena ongi iduri zait / -dio Beltxa'k saietsetik-; / baiña sei zati diran tokian / zazpiren kontua nondi? / Bizkaia, Araba, Gipuzkoa ta / Zuberoa ta Lapurdi, / *Naparroa* bat ezagutzen dut / gezur-mugaz an-emendi” (176. or.).

“Istori aunitz, ipui ere bai, / da *Naparroa* zârrean” (186. or.).

“Aralar'a bidea dugunean buru, / *Naparro* guziaren erdia inguru” (221. or.).

“Orrela dabil erririk-erri, / *Naparro*'ko Aingerua” (233. or.).

2.3.25. Autore beraren *Santa Kruz apaiza*<sup>45</sup>:

“Santa Kruz bizi zala il zan, eta aren gorputza *Naparroako* Monte-Agudora...” (10. or.).

<sup>44</sup> *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, PV, Iruñea, 1958.

<sup>45</sup> Erein, Donostia, 1985.

“...ler egiñeraztea erabaki zutela zirudín. *Naparroako* Leitzan lotan zeudela...” (24. or.).

“...Don Carlos Españira sartu zan Beran barrena, Maiatzaren bigarreanean. *Naparroako* mutilen buru jartzeko” (25. or.).

“Eguberri bezperan Oyartzunen jeiki ta arratsalderako *Naparroako* Leitzan” (41. or.).

“Ayako erasoaren bezperan etorri omen ziran Zarautza 1.500 gizonekin, *Naparroako* ta Gipuzkoako soldadu agintariak” (49. or.).

### 2.3.26. Toribio Etxebarriaren Eibarko hiztegia:

“*Nafarra*. adj. Navarro. *Nafarruan* jaixotako *nafarra*. *Nafar* aura, motza *baña* zaila ta *indartsua*.

*Nafarrua*. *Nafarrua*’tik agertu ziran gure *apurtzalliak*” (562. orr.).

### 2.3.27. Barandiaranen DIMV<sup>46</sup>:

“Gaur *Naparroa* nua ittara” (Albizturren bildua, 163. or.).

Barandiaranek berak erabilia:

“Odebe (Altsasu), Udabe, Beraingo-leze (Burunda), Mugi-ro, Akelarre (Zugaramurdi) eta Auza’koetan *Naparroan*; ...” (339. or.).

### 2.3.28. Damaso Intzaren *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*:

Iraizoz’ko Polikarpo aitak hitzaurrean:

“...naiz 86-87 urteak bete izan, or ibilli da *Naparroan* erriz-erri esaera zar geiago biltzen...” (10. or.).

Damaso Intzak berak:

“*Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*” (11. or.).

“...ainbeste urteren buruan bizirik daudela *Naparroa-ko* euskaldunen gogoan eta aoan” (11. or.).

“Baña, *Naparroako* guziak liburutxo batean bildurik ematea obe izango litzela adiarazi baitzidaten, ...” (11. or.).

“Eta *Naparroak* ez ditzala atzendu oien izenak, ...”.

“*Ez daude ero guzik Zaragoza-n*. Lenago eroak Zaragoza-ra eramaten ziren *Naparroa-tik*” (49. or.).

<sup>46</sup> La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1972.

2.3.29. *Erizkizundi Irukoitza*:

Lan honetan 'de (desde) Navarra' eta 'a Navarra' euskaraz emateko eskatu zitzaaien informatzaileei. Lehen galderaren erantzunetan ikusten denez nagusitasun osoa *Naparroatik* eta *Nafarroatik*-ek dute, baina toponimoaren azken bokala artikulutzat hartzen dutenak ere mordoxka dira.

Bigarren galderan ere nagusitasauna *Naparroara* eta *Nafarroara*-ri dagokie, baina hemen ere azken bokala mugatzailetzat hartzen dutenak mordoxka dira.

## 2.4. Bi Nafarroak bereizteko testuetan erabilitako izenak:

2.4.1. Axularren *Gero* (1643):

"*Naffarrea behereco* parte hetan, bertce anhitz leccutan beçala..." (6. or.).

"Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian. *Naffarrea garayan, Naffarrea beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan*" (17. or.).

2.4.2. Oihenarten *Atsotitzak eta Neurtitzak* (1657)<sup>47</sup>:

"Adiskide gabe bizi den aberatza / Pikatueta lo egiten datza.

Pikatuak erraiten diote Bortuko bide hersi eta kampix bati, zein baita Otsagabiren eta Larreneren artean, *Nafarroa garaiko* eta *Zuberoako mugan*" (30. or.).

"Orhiko xoria Orhin laket.

Orhi da Bortuetan mendi gora bat, *Nafarroa elgetako* eta *Zuberoako mugan*" (72. or.).

2.4.3. Lapurdiko mutilaren gutuna (1664)<sup>48</sup>:

"...lehen gastigatunerauçun bezela noha gençoac nahibadu bilbaura herrico mercatari batequin; ceren yçustenduçu lapurdin eta *bassanauaren* eçin egonez Prebostari emanic esqudaudela ene Partidac" (49. or.).

2.4.4. Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* (1666):

"Züberoak, Biarnok, *Basanabarrek*, Lapurdik, Franzia orok aithortzen dü, zü jaun handi bat, baroin handi bat, markis handi bat zirela..." (4. or.).

"Ene euskara, eta lengajia eztakit aprobata izanen denéz, bai, ala ez, badü orotarik zerbait, Züberoak, *Basanabarrek*, eta Lapurdik eman drauko zerbait, ..." (7. or.).

"D. IRUNBERRI, Utziateko Prioria, eta Akizeko Bik. Jenerala, eta Ofiziala *Basanabarren*" (9. or.).

<sup>47</sup> Herri-Gogoa, Donostia, 1971.

<sup>48</sup> J. M. Satrustegi, aipatutako lana.

2.4.5. Joannes Etxeberri Sarakoaren *Eskuararen ethorkia* (1715 ingurukoa):

“Egun eskualdun deitzen diren herriak, eta eskuaraz mintzo direnak dira xoilki *Nafarroa Garaia* parterik gehiena, *Nafarroa Beherea*, Zuberoa, Laburdi, Iphuzkoa, Bizkaia, eta Alaba herria” (101. or.).

2.4.6. J. M. Hiribarrenen *Eskaldunac*:

“Laphurdi, Chuberoa, *Nafarroa biac*, / Guipuzcoa, Alaba, Biscaico heguiac,...” (72. or.).

“*Nafarroa-Behera*, Chubero, Laphurdi, / Franciari citzaizcon partiletan gueldi. / Españiaco dire *Nafarroa gora*, Alaba, Guipuzcoa, Bizcaia ederra.” (74. or.).

“*Nafarroa-Beherac* izan du ohore; / Haurretan ezdu izar eskas orai ere...” (75. or.).

“Larre garaztar bat da, *Nafarroa goran*, / Izatu aiphatua erreguen deboran,...” (76. or.).

“*Nafarroa goicoa*. / *Nafarroaco* etche Zaharrac badire, / *Bi Nafarroac* luce betan bici dire; / Español yarría da *goico Nafarroa*; / Hibaia handia du hegotic Ebroa...” (77. or.).

2.4.7. Agosti Chaoren *Ariel aldizkaria* (1848-52)

“*Baxenabarreko*, Xuberoako, Baionako eta Bearnoko nekazale guziek ekharzen dituzte bere liztetan Michel Renaud Donibane Garazikoa, Augustin Chaho Atarrazkoa, Sain-Gaudens Orteskoa, eta Sain-Guilhem Tarnoskoa...” (52. or.).

“Hirur deputatu baizik eztuke Baxapireneetako departamentiak. *Baxenabarrek*, Ziberuak eta Laphurdik, hori erran nahi beita Uskal-herriak eta Uskaldunek orok, eztukie deputatu bat baizik” (71).

2.4.8. Charles Bécas ainhoarraren olerkiak (XIX. mendearen bigarren erdikoak)<sup>49</sup>:

“Gure bizia daila goiti”ta behiti, / Enetzat seurik hola gertatu da bethi. / *Baxinarren* bi urthe, Miarritzen zortzi, / Nahi nuke Ahetzen hil eta ehortzi” (112. or.).

## 2.4.9. Frantzizko Laphitz arizkundar-irisarritarraren “Oderik, edo Aita-Sainduaren Soldadoa” (1862):

“MAKHILARI: *Nafarro-Beherer*at ez jiteco cer duk?

MAKHILAK: Haux nezazuen beldur nuk!” (25. or.).

<sup>49</sup> *Fantasia y realidad...*

2.4.10. *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak* (1900-1930):

“Baigorriar, hiru, geroxago ohora dezaketenak *Baxenabarre*” (36. or.).

“Galdegiteko xedea hartu zutelarik gaixoez orduko frantses buruzagier, utz zitzatela Zibero eta *Benabarrarekin*, bildurik bat egoitera, ...” (46. or.).

“Uztaritzeko Dassance jaunak bilatuko ditu zoin izan diren Lapurdiko *Baxenabarreko* eta Xuberoko idazlari hoberenak...” (65. or.).

“Ohartua niz badirela zuen artean Arabatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik, *Nabarretik*, Lapurditik, Ziberotik, *Benabarretik* hunat etorriak” (122. or.).

“Dagola menderen mende Ziberoa euskaldun, *Benabarre*, *Nabargoiti*, Lapurdi...” (148. or.).

“*Nabar-goitin*, *Baxenabarren*, Lapurdin, ...” (245. or.).

“...Lapurtar, Ziberotar, *Be* eta *Goi-nabartar* apez, eskolemaile, neurtzile, idazle, oro elgarrekin eskuz esku. Lapurdi eta *Benabarre* hargatic buru” (294. or.).

“Ordutik, zazpi eskualdetan jarri zen gure herria: lau espainolak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta *Nabar-goiti* edo *Nafarroa*); hiru frantsesak (Lapurdi, *Benabarre* eta Zibero) (341. or.).

2.4.11. Autore beraren *Beribilez*:

“*Nabar-goitin* harat” (45. or.).

“Alhagia murriz iduritu baitzaiku eta ez Frantziako aldean bezain musker, baditake hobendun ere den *Nabar-Goitiko* iguzki samina. Baina jin giren tokietan baino zendako ditake hemen saminago iguzkia? Berotzen badu gehiago *Nabar-Goitin*, ez othe da *Nabar-Goitiko* lurra idorrago delakotz, tinkiago, gogorrago Lapurdikoa baino?” (51. or.).

2.4.12. Enrike Zubiri “Manezaundi”-ren *Artikulu bilduma* (1930-36):

“*Benabarreko* eskuaraz” (69, 79, 82, ... orr.).

“Baigorriar eta Aldunden, Garazin ala Amikuzen, *Baxenabarre* osoan, ...” (100. or.).

“Ohointza hori mendiez hunaindiko alderdian egin zuten, bainan ez harandiko edo Frantzia aldeko *Nafarroa*, *Benabarran*” (144. or.).

2.4.13. Azkueren *Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera*:

Azkuek berak aezkeraz erabilitakoa:

“Zuberon Iztegirako gaiketan nindäileläik, Lapurdi ta *Benaparroa* ta Zuberoko mintzalariz gäinera, Erronkari ta Zaraitzukoak ere banitue” (181. or.).

2.4.14. Orixeren *Euskaldunak*:

“Ahetze’k eta Saraitzu’koek / *Baxenabarrekoekin* / artzai-arteko autsi-mautsiak / urtero ditute berdin” (189. or.).

2.4.15. Pierre Lafitteren *Murtuts eta bertze...*:

“...bainan, itxura guzien arabera, portu hori! *Baxe-Nabarre*ko portua bezala zen, ...” (56. or.).

2.4.16. *Erizkizundi Irukoitza*:

Lan honetan “de (desde) Navarra” eta “a Navarra” euskaraz nola esaten zen galdegitean Iparraldeko informatzaile gutxi batzuk (hiruk) *Baxinabarretik*, *Basenabarretik*, eta *Baxinabarrera* erantzun zuten (330-331. orr.).

## ONDORIOAK:

1. Lekukotasun idatzien arabera *Nafarroa* da gure herrialdearen euskarazko izen jatorra, bukaeran *-a* itsatsia duelarik. Hortaz *Nafarroa*, *Nafarroatik*, *Nafarroara*, *Nafarroakoa* ... eta abar deklinatu behar da, *Aezkoa*, *Gipuzkoa* ... eta antzeko beste izen batzu bezalaxe. *Nafarroa* da, gainera, egungo euskara batuaz (telebistan, irratian, egunkarietan, liburuetan ...) erabiltzen den forma.

2. Toki askotan erabiltzen den *Naparroa* aldakia *Nafarroa* baino berriagoa da, eta honetatik atera da,  $f > p$  aldaketa ezagunaren bidez<sup>50</sup>.

3. Gentilizioaren lehen lekukotasuna eta egun zabalduen dagoena *nafarra* da (*naparra* honen aldaera besterik ez baita), eta forma hauxe da hobetsi beharreakoa, beranduago azaltzeaz gainera askoz toki gutxiagotan erabiltzen den *nafartarra* gaitzetsi gabe, ordea.

4. Bi Nafarroak bereizteko autore klasikoek *Nafarroa garaia* eta *Nafarroa beherea* ibili izan dute. Garbi dago bigarren hau erdaratikako *Baxenabarre* eta berriak bide diren *Benabarra* edo *Be(he)nafarroa*<sup>51</sup> baino jatorragoa dela, eta beraz lehenetasuna eman behar zaiola.

<sup>50</sup> Ikus FHV, 263. eta 266-267. orr.

<sup>51</sup> Ikus Alfontso Irigoien, *Sobre toponimia del País Vasco Norpirenaico*, Deustuko Unibertsitatea, 1990, 14. or.